

**ITZULPENA<sup>1</sup>**

---

Araua:	2009/80/EE ERABAKIA, EUROPAKO PARLAMENTUARENA ETA KONTSEILUARENA, 2008ko abenduaren 18koa, Europar Batasuneko Elkartasun Funtsa baliatzeari buruzkoa, Europako Parlamentuak, Kontseiluak eta Batzordeak 2006ko maiatzaren 17an izenpetutako erakunde arteko Hitzarmenak, aurrekontu-diziplinari eta finantza-kudeaketa onari buruzkoak, 26. paragrafoan araututakoari jarraituz.
--------	--

---

Ondorengo itzulpena Eusko Jaurlaritzak egin du Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko (IVAP) Itzultzaile Zerbitzu Ofizialaren bidez eta Zerbitzu honen ziurtagiriarekin.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik.

---

<sup>1</sup> Jatorrizko testua, Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean argitaratua, hauxe da: «**DECISIÓN 2009/80/CE DEL PARLAMENTO EUROPEO Y DEL CONSEJO**, de 18 de diciembre de 2008, relativa a la movilización del Fondo de Solidaridad de la Unión Europea, de conformidad con el punto 26 del Acuerdo Interinstitucional, de 17 de mayo de 2006, entre el Parlamento Europeo, el Consejo y la Comisión sobre disciplina presupuestaria y buena gestión financiera» (*Diario Oficial de la Unión Europea*, L 26/3 de 30/1/2009)

II

*(Derrigorrez argitaratu behar ez diren EE/Euratom Tratatuak aplikatuta onartutako egintzak)*

ERABAKIAK

EUROPAKO PARLAMENTUA ETA KONTSEILUA

**ERABAKIA, EUROPAKO PARLAMENTUARENA ETA KONTSEILUARENA,  
2008ko abenduaren 18koa,**

**Europar Batasuneko Elkartasun Funtza baliatzeari buruzkoa, Europako Parlamentuak, Kontseiluak eta Batzordeak 2006ko maiatzaren 17an izenpetutako erakunde arteko Hitzarmenak, aurrekontu-diziplinari eta finantza-kudeaketa onari buruzkoak, 26. paragrafoan araututakoari jarraituz**

(2009/80/EE)

EUROPAKO PARLAMENTUAK ETA EUROPAR BATASUNEKO KONTSEILUAK,

Europako Parlamentuak, Kontseiluak eta Batzordeak 2006ko maiatzaren 17an izenpetutako erakunde arteko Hitzarmena, aurrekontu-diziplinari eta finantza-kudeaketa onari buruzkoa [1], aztertu dute, eta bereziki, haren 26. paragrafoa.

2012/2002/EE Erregelamendua, Kontseiluarena, 2002ko azaroaren 11koa, Europar Batasuneko Elkartasun Funtsa sortzen duena, aztertu dute [2].

Batzordearen proposamena aztertu dute,

Alderdi hauek kontuan hartu dituzte:

- (1) Europar Batasunak Europar Batasunaren Elkartasun Funtsa sortu du ("Funtsa"), hondamendiak jasan dituzten eskualdeetako herritarrei elkartasuna adierazteko.
- (2) 2006ko maiatzaren 17ko erakunde arteko Hitzarmenari esker, urtean gehienez 1.000 milioi euro mobiliza daitezke Funtsetik.
- (3) 2012/2002/EE Erregelamenduko xedapenen bidez mobiliza daiteke Funtsa.
- (4) Txiprek Funtsa mobilizatzeko eskaera egin du, lehorreak eragindako hondamendiaren ondorioz.

ERABAKI DUTE:

*1. artikulua*

2008ko aurrekontu-ekitaldirako Europar Batasunaren aurrekontu orokorraren esparruan, 7605445 euro mobilizatuko dira konpromiso- eta ordainketa-kreditutan, Europar Batasunaren Elkartasun Funtsetik.

*2. artikulua*

Erabaki hau Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean argitaratuko da.

Estrasburgon emana, 2008ko abenduaren 18an.

*Europako Parlamentuaren izenean*  
*Presidentea*  
H.-G. PÖTTERING

*Kontseiluaren izenean*  
*Presidentea*  
E. WOERTH

[1] C 139 EO, 2006.06.14koa, 1. or.

[2] L 311 EO. 2002.11.14koa, 3. or.